

B

BARREN

TOKIKOM

Sukaldaritzaren gailurrean

Jose Rojano, sukaldaria





OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higieena eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
BERRIAI
- Tapoiak neurria
(uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I © (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:
+ Traumatologia.
+ Estetika (zelulitisa, es-triak)

Osasunerako ariketa agin-dua

(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak
(errehabilitazioa)
3 pertsona gehien.

Txirrindulariaren biomekani-ka (kalak, ergonomia bizikle-tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191
667 953 628



2014 KOMERTZIO ETA ENPRESEN GIDA

**Elgoibar eta Mendaroko
komertzio eta enpresen gida
prestatzen dihardugu**

Zure enpresaren helbidea edo telefono zenbakia eguneratu nahi badituzu, deitu **943 744 112** edo **943 743 704** zenbakira edo idatzi barren.publi@elgoibarkoizarra.com helbidera.



Inma
Mugertza

Gaur pozik nago, Ander! Itxaropenez eta umore onez idazten ditut lerro hauek. Prentsan irakurritako izenburu batek irribarrea eragin dit... Azkenean berri on bat! 169

Espezie berria aurkitu dituzte Amazonian, ez al da poztekoa? 14 landare eta 155 animalia dira, gehienak armiarmak. Bai, badakit ez direla politak eta askori higuina eragiten dietela, baina ze demontre! Dirudienez, oraindik leku osasuntsuak badaude planetan, izaki bizidun berriak ekoizteko modukoak.

Teknologia berrien munduan bizi gara, sekulako informazio-siste-

“Izadian ez gara ezer, baina ez dugu onartzen natura kontrola ezina dela”

mak ditugu, mota guztietako tresna sofistikuatuak, planeta osoaren mapak ia zentimetroz-zentimetro egiteko gaitasuna...azken finean Lurra eta bertan dauden izakiak kontrolpean ditugun sentsazioa ematen diguten hainbat tramankulu. Baina, sentsazioa besterik ez da.

Asteak daramatzagu itsasora begira, olatuek gure eraikinak nola eraman dituen ikusten. Ibaiek ere ikarutzen gaituzte uholde-garaietan. Une horietan, naturaren aurrean babesik gabe gaudela somatzen dugu, eta hala da, izadian ez gara ezer, gu baino askoz ere boteretsuagoa da, baina ez dugu onartzen natura kontrolatu ezina dela.

Ibai kutsatuak, zabortegeiak nonahi, berotegi-efektua, milaka espezieren desagertzea, izadia bortxatzeko eta kontrolpean izateko grina... hori da gure ondarea. Baina natura esker onekoa da, eta tarteka ustekabeen harrapatzen gaitu berri txundigarri batekin...169 espezie berri! Amazoniako iluntasunaren babesean seguruago egongo ziren akaso, baina aurkitu egin dituzte eta babesik gabe gelditu dira, gu itsasaldi zakarren aurrean bezala.



Ander
Izagirre

Nik, ordea, ezin horren pozik idatzi, Inma. Neu ere pozten nau berri horrek, baina zoritxarrez, egunero desagertzen dira hainbat espezie, horietako asko gizakiak aurkitu aurretik gainera.

Diozun bezala, teknologia berriak ikaragarriko bultzada ematen ari dira naturaren ezagutza areagotzeko lanean, baina batzuetan, gizarte moderno honek naturarengatik urruntzen gaituela sentitzen dut nik. Esaterako, zenbat ume ibiltzen dira gaur egun, ezkailu, zapaburu edota kilker bila? Naturarekiko kontaktu zuzena desagertzen ari ote da?

Denboraleen harira, animalien ere izugarriko ondorioak eragin dituzte, itsas hegaztietan batez ere. Prestigeko hondamendiaren ondorioz hil ziren hegazti kopurua gainditu omen da! Hegazti zaleentzat, ordea, ekaitzok izan dute nolabaiteko alde ona ere, haien ondorioz, oso urruneko espezie batzuk azaldu baitira gure kostaldean.

“Bai, baina bestetik: gure jarduerak ez al dauka eraginik planetaren orekan?”

Zuk diozun bezala, aurten jasandako denborale bortitzek argi utzi digute naturak izan dezakeen indarraren aurrean ezer gutxi egin dezakegula gizakiok. Baina ikuspuntutaz aldatzen badugu, zer egin dezake ba naturak gizakiaren indarraren aurrean? Gure jarduerak ez al dauka eraginik planetaren orekan? Azken urteotan bueltaka dabil klima aldaketaren kontua. Zalantza asko izan dira jendartearen, baina urtetik urtera gero eta froga sendoagoak aurkitzen dituzte zientzialariek, eta badirudi ez dela asmatutako ipuin bat. Azken ikerketek diotenez, Europako batzuk besteko tenperatura gradu batzuk igoko omen da. Orduan, bai, izango ditugula espezie berriak, Inma. Baina ez Amazonian, espezie tropikalak Euskal Herrian baizik!!

I. URTEURRENA

JOSE ZABALA JUARISTI

2013ko martxoaren 16an hil zen, 87 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, martxoak 15, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiaren.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
bizitzeko



MENDAKORO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Gora basogintza

la 400 akazi hesola egin, akaziak bota, tron-zatu, zorroztu eta sartu. Hektarea pasako lur saila itxi, garbitu, inausketak eta selekzioa erdi burutu (helburuaren arabera...), eta lanak egiteari uko egin omen diodalako, diru laguntzak ukatu dizkidatela iritsi zait orain etxera. Nazkagarria. Paisaia errestauratu, pinaditik sagarrondora pasatu, garbitu... eta diru laguntzak ukatu berriz ere. Hektarea baino gutxiago omen du lur sailak, baina pinu sailak beti laguntzen dituzte diruz, edozein neurritakoak direla ere, eta bertako basoa ez. Zergatik? Lana behar bezala egiteari uko beraiek egin diote nabarmen, eta gainera, soldata ederra poltsikortu, baso-langileon eta gizartearen kontura. Horrela ditugu basoak; biodibertsitatea galtzen, zikin, inautu barik, ahaztuak, teknikari gabe... baina guri aberastasunaz hizketan etorriko zaigu diputatu jauna. Erleak, ahuntzak, zerriak, astoak, liztorraren aurkako borroka, ikasketak... proiektua deskribatzen eta garatzen dut (dirurik gabe), eta beraiek deus ez! Apur PNTan eta eguraldi onarekin. Putadak egin, gainera. Azkena ur depositua lapurtu didate, eta ardi hilotz bat jaurti. Begira Facebook basogintza. Non dago zure proiektua? Non daude lanpostu berriak? Non daude lan baldintzak? Lan ildoak? Non daude zure ikasketak? Garapena? Berrikuntza? Non dago zure lana? Eskatu barkamena faborez, ez baita preseski uko egin dudala.

Lehen, eskuragarri zegoen konposta ere, eta orain ez. Enpresa publikoentzat bakarrik dago. Tabernak konpostagailuen zain, deseroso, soberakin horiek ezkur-txerrientzat izan beharko luketenean, adibidez.

Partaidetza eskatu zenuten. Afiliatu nintzen (eta desafiliatu ondoren), nire ekarpena eskaini dut, gestioak burutu ditut, baina esku beltz deuseztaille pribilegiatua.

Api 5ean oposizioa dut Bizkaian basozain izateko. Zer izango ote da? Ariketa txukun burutu eta egiteari uko egin diodala azalduko al da emaitzetan?

Izan zintzo! Kontuz faltsuekin. Berriz ere, ez tabaida batetara gonbidatzen zaitut, Kultur Etxean. Gora basogintza!!

Mikel Etxabe ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Trenbide kalean zama lanetarako gunean aparkatzen du jendeak: "Trenbide kalean zama lanak egiteko gune bat dago, baina jendeak aparkaleku arrunta balitz bezala erabiltzen du gune hori. Askotan autoz beteta egoten da, eta sekula ez diot auto bati ere isunik ikusi. Aparkatzea debekatuta baldin badago, auto horiek isuna behar lukete, eta bestela, kendu ditzatela marra horiak eta utzi dezatela libre".



Pilar ikastetxe inguruan zegoen zuloa konpondu dute: "Pilar ikastetxe inguruetik 634 errepiderako irteeran zulo bat zegoen aspalditik, eta azkenean konpondu dute. Autoaren gurpila beti zulo horretan sartzen zen, eta bazen konpontzeko garaia. Eskerrik asko. Beste aldean ere konponketak egin behar direla iruditzen zait, hau da, Maalako errotondara jaisterako bidean. Han ere lurra zulatuta dago, eta konpondu izan duten arren, badirudi ez dutela behar bezala konpontzen, behin eta berriz hondatzen delako. Eskertuko genuke konponketak betirako izatea".



Txalo bero bat jostunei: "Txalo bero bat Regina Arrieta, Maria Isabel Aizpurua eta Mari Karmen Arizagari. Zuei esker, aurtan ere Ikastolak makina bat txapel berritza lortu du. Eskerrik asko, Ikastolako guztion partez".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bigaltzeko:
barren@elgoibarrizarra.com 943 744 112

ESKERTZA

MARIA SANGRONIZ ELORRIAGA

(Patxi Iriondoren alarguna)



*Sondikan jaio Mitxinisen ta,
Elgoibarrera etorria
bizi guztixan lan asko inda
gustokoa baserria
ama, amama ta birramama
famili zoragarria
bihotzean gordeko ditugu
zure maitasun ta irria
zeruan berriz elkartu dira
Patxi Gazte ta Maria.*



2014ko martxoaren 6an hil zen, 96 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

Elgoibarri eta Mendarori 32. kilometroa osatzea egokitu zaie ekainaren 8ko giza katean

Durango eta Iruñea batuko dituen 123 kilometroko giza katea egingo dute

Durango eta Iruñea batuko dituen 123 kilometroko giza katea egingo dute ekainaren 8an, Gure Esku Dago ekimenaren barruan. Horretarako, 50.000 bat lagun beharko direla kalkulatu dute antolatzaileek, eta Elgoibarko eta Mendaroko lagunei 32. kilometroa osatzea egokitu zaie, Bergara eta Antzuola artean. Hara joan nahi dutenentzat autobusa antolatu dute Elgoibartik.

Metroak salgai

32. kilometroari dagozkion metroak erosteko aukera izango dute herritarrek. Metro bakoitza bost euroan jarri dute salgai. Metroarekin batera motxila bat eta giza katerako materiala jasoko du erosleak. Barixaku arratsaldero Kalegoen plazan jarriko duten mahaian edo Elgoibarko batzordeko kideek astelehenero, 19:00etatik aurrera, Kultur Etxeko sotoan egiten dituzten bileretan erosi daitezke metroak. Era berean, kamisetak eta lepoko zapiak ere salgai jarri dituztela jakinarazi dute.



Argazkia martxoaren 22an

Erabakitzeo eskubidearen aldeko argazki erraldoia atera nahi dute martxoaren 22an, Kalegoen plazan (13:00). Ahalik eta jende gehiena batzeko deia

egin dute antolatzaileek. Ildo beretik, Elgoibarko batzordeko kideek nabarmendu dute dinamika honekin bat egin nahi duten herritarrek atea zabalik dituztela laguntzeko.

Lanbide Heziketaren jardunaldiak martxoaren 18an hasiko dira



Isla galdaragintzara egindako bisita

Elgoibarko Udalak Lanbide Heziketaren jardunaldiak antolatu ditu bosgarren urtez, herriko industria eta prestakuntza sustatzeko. Horren harira, bigarren hezkuntza ikasten ari diren

ikasleentzako eta haien gurasoentzako informazio eta jarduera kanpainak egin izan dituzte azken lau urteotan, eta aurrean ere gauza bera egingo dute. Martxoaren 18tik apirilaren 4ra bitartean Lanbide Heziketari lotutako hainbat ekitaldi antolatu dituzte: Martxoaren 18an IMHko eta Mekako prestakuntza eskaintzari buruzko bilera irekia egingo dute. DBH4. mailako eta Batxilergoko ikasleentzako eta gurasoentzako saioa da, baina langabetuek eta interesa duen edonork har dezake parte. 19:00etan izango da, Arreiturre-Mekako bilera gelan.

Ate irekiak

Informazio bilerekin gain, ikasleek eta gurasoek heziketa zentroak ezagutzeko aukera ere eskainiko dute. IMHko ate irekiak apirilean 5ean (11:00), maiatzaren 24an (11:00), maiatzaren 28an (18:00) eta ekainaren 11n izango dira. Meka Albitxuri eta Meka Arreiturreko eraikinak, bestalde, maiatzaren 9an egongo dira zabalik, goizeko 9:00etatik aurrera.

Ekitaldia **Enpresa simulatuen azoka**



Meka Lanbide Eskolako ikasleak Barzelonan izan dira aste honetan, enpresa simulatuen nazioarteko azokan. 22 ikasle eta lau irakasle joan dira, Elgoibai S.A enpresa simulatuaren ordezkari modura, eta bera izan da Euskal Herriko ordezkarien artean stand propioa izan duen bakarra. Elgoibarko ikasleekin batera, Frantzia, Belgika, Polonia, Alemania edota Austriako ikasleek ere hartu dute parte. Enpresa simulatuen metodologiari esker benetako enpresa baten funtzionamendua ikasten dute ikasleek. Mekako arduradunek eske-

rrak eman dizkiete Kutxari, Udalari eta ikasleen familiei, guztien laguntza ekonomikoari esker azokan parte hartzeko aukera izan dutelako.

Lanbide Heziketa sendo Debabarrenean

Lanbide Heziketako ikastetxeetan ikasle kopuruak %15 egin du gora ikasturte honetan batez beste [IMHn %21,82 hazi da matriculazioa, eta Meka GLHBIn, %12]. Hala jakinarazi du Debabarreneko Lanbide Heziketa sustatzeko Mahaiak, eskualdeko LHko zentroetako ordezkariak eta Debegesa garapenerako elkarteak sortutako Mahaiak. Mahai horren esanetan, datu horrek erakusten du Lanbide Heziketa kalitatezkoa dela eta krisi garai honetan enpresek dituzten beharretara ondo egokitzen dela, enpresei erantzun "dinamikoa eta berritzailea" eskaintzen dielako eta Debabarreneko Lanbide Heziketak espezialitate eskaintza zabaldua eskaintzen duelako. Gaur egun, 40 ziklo formatibo inguru eskaintzen dira gure eskualdean, eduki teoriko zein praktikoekin.

Irudia **Martxoak 8**



Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak antolatuta, elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek joan zen zapatuan, Kalegoen plazan. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna aldarrikatzeko batu ziren hainbat herritar, eta tartean Udaleko agintariak eta Kontseiluko emakumeak ere baziren.

Geoparkearen eremua, Mendaron

Geoparkearen irudia zabaltzeko asmoz, bide seinaleak jarri dituzte Geoparkearen eremura sartzeko sarrera nagusietan. Lanak oraindik amaitu ez dituzten arren, dagoeneko kartelak ikusgai dira hainbat tokitan, hala nola, A8 autobidean, Zumaiara parean, N-364 errepideko zenbait puntutan eta beste bigarren mailako errepideetan, beti ere, Geoparkearen eremurako sarbideetan. Seinale horietako bat Mendarotik Debara bidean jarri dute.



Giza eskubideei buruzko hitzaldia hilaren 18an

Elgoibarko Udalak eta Lokarrik Bizikidetzeta eta adiskidetzeari buruzko jardunaldiak antolatu ditu, eta datorren martitzenean izango da azkena. Andres Krakenbergerrek, Argituz giza eskubideen aldeko elkartearen presidentea, *Biktimak euskal gizartean barne hartzen dituen memoria kolektiboa jorratuz* hitzaldia eskainiko du. 19:00etan izango da, Ikastolan.

Zuhaitz Eguna ospatuko dute bihar, Sargoatan

Morkaikok antolatuta, Zuhaitz Eguna ospatuko dute bihar Sargoatan. Sargoate ingurunea auzolanean berritu dute Morkaikoko kideek, eta azken lana izango da inguru horretan zuhaitzak landatzea. 9:30ean batuko dira IMHko tenis pisten ondoan, eta autoz joango dira Azkara-teraino. Handik oinez egingo dute Sargoaterako bidea.



JOSE ROJANO

SUKALDARIA

Gailurra jo du Jose Rojano elgoibartarrak sukaldaritzan. Iaz, Hiru Eguzki aipamena jaso zuen, Repsol Gidak ematen duen aipamen gorena, eta horrek lanean “burubelarri” jarraitzeko bultzada eman diola aitortu du. Las Palmasen (Kanariar uharteak) dihardu lanean. Bost izarreko hotel bateko sukaldari-burua da, eta, luze ez dela, bere ize-na hartuko du hotel horretako jatetxeak.

“Horra joaten naizen aldiro saiatzen naiz sagardotegiren batera joaten”

Repsol Gidak ematen dituen gastronomia sarietan sari nagusia jaso zenuen iaz: Hiru Eguzki. Zer izan zen zuretzat?

Sukaldean lanean dihardudan hogeitau urteei egindako aitortza izan zen, eta izugarritzko poza hartu nuen. Ikaragarria izan zen. On-do egindako lanagatik nabarmendu ninduten, eta hori beti da gustagarri. Bost izarreko hotela da gurea, eta hotelean eguneko jana emateaz gain, otordu bereziak ere prestatzen ditugu Las Palmas bertako beste areto batzuetarako. Lanbide gogorra da, baina aipamen hori bultzada handia izan da lanean burubelari jarraitzeko. Bultzada, eta esijentzia handia ere bai.

Juan Mari Arzakaren Arzak jatetxearen edota Martin Berasategiren Zuberua jatetxearen pare jarri zarete. Zerk bereizten du Kanarietako sukaldaritzaren gure sukaldaritzatik?

Oso ezberdinak dira, baina nirea bien arteko nahasketa bat da. Nire sukaldaritzaren oinarria euskal sukaldaritzaren da. Ni horkoa naiz, eta oinarrian horkoa daukat, baina kontua da hemengo produktuak oso ezberdinak direla eta hogeitau urte daramatzadala hemen lanean eta azkenerako dena nahasten dela. Horkoa eta hemengoa, eta baita urte hauetan guztietan kanpora egindako bidaietan ikusi dudana ere. Sukaldaritzaren berria esaten duguna hori da, azken batean. Produktu eta sukaldatzeko era berriak probatu, egoki nahastu, eta gauza berriak sortzea.

Pertsona ezaguna zara. Kanarietako telebistan ere baduzu saio bat. Kanarietako Argifiano al zara?

Ez, ez, mesedez. Ez esan halakorik. Eta ospetsua ni? Ez. Egia da, hemen, Kanarietan, nahikoa ezaguna egin naizela, baina hemendik kanpora ez. Abangoardiako sukaldaritzaren egiten dugu, eta horregatik gara ezagunak hemen.

Estimazio eta entzute handia dauka euskal sukaldaritzak. Zerk egiten du horren berezi?

Produktuak, lehengaiak. Kalitatezko produktuak erabiltzen dira, mimo handiz zaindu eta aukeratutakoak, eta hori berme handia da. Horko arraina oso ona da, okela mundiala, eta gainerako oinarritzko produktuek ere kalitate gorena dute. Horri guztiari gehitu behar diogu Frantzia hor bertan daukagula eta sukaldaritzaren frantziarra oso ona dela.

Ze ezaugarri ditu zure sukaldaritzak?

Autore sukaldaritzaren modernoa da nirea. Kalitatezko produktuetan oinarritutako platerak dira.

“Abangoardiako sukaldaritzaren egiten dugu, eta horregatik gara ezagunak hemen”

Zeintzuk dira Kanarietako produktu izarrak?

Gazta, tomatea eta frutak. Askok ez dute jakingo, baina gazta gehien kontsumitzen dugun erkidegoa izango gara Espainian, eta hemen bertan ezin konta ahala gazta dauzkagu, kalitate izugarritzkoak. Nik esango nuke Espainiako gazta onenak ditugula hemen. Kanariar uharteetako irla bakoitzak jatorri izen bat dauka, gainera, eta gure gaztak oso estimatuak dira munduko jate-txe onenetan.

Ospe handiko jatetxeetan jardun duzue lanean eta pentsatzeko da gaur artekoan izen handiko sukaldari askorekin lan egingo zenuela. Zer eman dizu zuri horrek?

Gauza bat esango dizut. Norekin edo zeinen ondoan lan egin duzun baino garrantzi-

tsuagoa da norberak egindakoa. Gazte askori buruz entzuten dugu ‘honek holako edo halako sukaldari ezagunarekin jardundu lanean’, baina hori baino garrantzitsuagoa da jakitea gazte horrek zer egin duen. Norberak egin behar du hemen, eta baloratzen dena hori da: ekintzailetasuna, gauza berriei saiatzeko gogoia, helburuak jartzeko eta haiek gaintzea..., eta horren guztiaren gainetik, lanean orduak sartzeko da inportantea.

Ez dakit zer gertatzen den. Sukalde gehietan emakumezkoak ikusten ditut, baina sukaldari entzutetsu guztiak gizonezkoak dira.

Gero eta sukaldari emakumezko gehiago dago. Hor daukagu Carme Ruscaldeda Katalunian, Susi Diaz Alacanten... baina, bai, egia da oraindik gizonezkoak garestu gehienak. Zergatik? Beharbada, izan daiteke emakumei gehiago tokatu zaielako etxearen ardura hartzea eta sukaldaritzaren denbora asko eskatzen duelako. Gizonok libreago ibili gara, eta denbora gehiago izan dugu geuk nahi genuenean aritzeko. Guk besteko askatasuna izan balute, ni seguru nago gutxienez gure pareko izango zirela eta ziurrenik hobeak ere bai. Izan ere, sukaldari emakumeena izan da urte askoan eta eurengandik jaso dugu sukaldaritzaren dakiguna. Gure ama eta amamek egin dute transmisioa; haiengandik asko ikasi dugu. Beharbada ez dugu asmatu egindakoa baloratzen, baina haiei esker gara gu.

Bost izarreko hotel bateko sukaldari zara. Noizbait pentsatu al duzue zeure jatetxea zabaltzea?

Bai. Las Palmaseko (Kanaria Handikoa) Santa Catalina hoteleko La Terraza jatetxearen sukaldari-burua naiz, eta aldi berean, eta besteak beste, Las Palmaseko auditorioari jatetxearen eta hiri bereko Perez Galdos antzokioaren arduratzen da nire taldea. Azken orduko berri bat emango dizut, hala ere. Laster, azken orduko ezean as-

te honetan bertan, neuk hartuko dut Santa Catalina hoteleko jatetxea, eta aurrerantzean, nire izena izango du: Jose Rojano. Era berean, hotel-eskola bat zabaltzeko asmoa daukat Maspalomasen, Las Palmas hegoaldean. Proiektuz beteta daukat burua, egia esan.

“Dena probatu dugulakoan gaude dena dakigulakoan, baina guk ezagutzen duguna ez da ezer”

Ordu asko ematen dituzue sukaldean. Edonon izango da sufritua, baina nola eramaten da hori herrialde turistiko batean?

Sukaldean lanaldiak amaigabeak dira, baina nik zorionez, ordu-tegi malguagoa daukat. Dena den, ez da erreza, ez, gainerako guztiak opor usainean daudenean norberak orduak eta orduak ematea sukaldean itxita. Dena den, gurea hiriko hotela da, eta turistekin baino lan gehiago egiten dugu negozio gizonekin-eta. Hotel enblematikoa da hemen gurea. Pentsa: gau gehien hemen pasatu ditu [Espainiako] erregeak eta jende ezagun asko pasatu da hemendik.

Zeintzuk, esate baterako?

Ez dakit; asko dira: Sabina, Serrat... Kanarietara datozen artista gehienak hona etortzen zaizkigu eta nazioarteko politikari asko ere bai. Txinako lehen ministroa izan genuen duela gutxi eta Afrikako ministroek ere beti egiten dute hemen geldialdia.

Eta erraza da jende horrentzat lan egitea? Esaten dena bezain bereziak dira horietako asko?

Denarik dago, baina orokorrean ez. Aurreritzi asko alboratu ditugu. Emilio Botin, adibidez, sarri etortzen da, eta oso gizon atsegina eta umila da. Gertatu izan zaizkit egoera xeble batzuk ere bai, hala ere. Behin gogoratzen naiz etorri zitzaigula gizon bat, gizon dirudun bat, eta dantzan jarri gintuela guztiok. Judua zen bera, eta jateko guztia euren erara prestatzeko eskatu

zigun. Oso gogorra egin zitzaidan, nik ez nuelako sukaldaritza judua ezagutzen. Izugarri aberatsa zen gizona, eta jateko guztia etxera eramateko eskatu zigun. Komeriak izan genituen. Ez zuen sukaldaritza berririk eskatzen, sukaldaritza tradizionala nahi zuen, baina euren, eta jakina, guk ez genekien zer jan zezaketen eta zer ez, eta gainera, okelakiak-eta euren erara hildako animalienak izan behar zuten.

Nola bizi zarete Kanarietan?

Hau ikaragarria da. Urteko 365 egunetan bizi egiten gara hemen. 365 egunetik gutxienez 340 egunetan eguzkia izaten dugu. Gaur, adibidez, hodei bakarra ikusten dut zeruan eta jendeak hotz egiten duela dio, baina 21 gradutara gaude. Zer gehiago esatea nahi duzu? Gainerako uharteekin harreman handia daukagu, gainera. Fuerteventura, adibidez, ordubetera daukat itsasontziz, eta hantxe ditut Europako hondartza onenak. Hamar urtez bizi izan nintzen han, eta ikaragarri gustatzen zait.

Hori guztia izanda, herrimik sentitu daiteke?

Handia. Nik hor [Euskal Herria] daukat dena: familia, lagunak... eta horrek asko lotzen du, baina egia da oso-oso pozik bizi naizela hemen. Zoriontsu naiz egiten ari naizen bidearekin. Orain, Kataluniako sukaldari ezagun batzuekin kanpora noa sukaldatzera eta gauza berriak ikastera, eta ikaragarri ari naiz disfrutatzen.

Bidaiek aipatu dituzu. Juan Mari Arzakek beti azpimarratzen du oso aberasgarria dela bidaiatzea eta atzerriko merkatuak bisitatzea, lehengai berriak ekarri eta gure sukaldaritzarekin uztartzeko.

Ezinbestekoa dela esango nuke. Dena dakigula pentsatzen dugu, dena probatu dugulakoan gaude, baina guk ezagutzen duguna ez da ezer. Orain hamar urte inork ez zekien sukaldaritza japoniarra existitzen zenik ere, eta gaur egun modan dago, eta ez dago jatetxe on bat sukaldaritza mota hori bere egin ez duenik. Sukaldaritza otomanoa ere ezezagunagoa izango da beharbada oraindik, baina indar handia hartzen ari da. Fusio horiek ezinbestekoak dira sukaldaritzan.

Zein sukaldaritza eredu da zuri gehien gustatzen zaizuna? Zein zuretako menu ideala?

Sagardotegietako menua. Ez da jateko landua, baina izugarri produktu ona era-

biltzen dute, eta nik balio handia ematen diot horri. Horra noan aldiro saiatzen naiz sagardotegiren batera joaten. Sukaldaritza berria asko gustatzen zait, baina eguneroko kanpoan jan beharko banu erretegiaren batera joango nintzateke, dudarik gabe. Ikusi, bestela, Madrilen, Bartzelonan eta inguruetan zer nolako estimazioa duten euskal erretegiek. Horiek beti daude modan. Sukaldaritza berria egiten duten jatetxeak ondo doazela? Bai, baina beste horiek hobeto, eta gainera, ez da oraingo kontua. 30 urte edo gehiagoz ari dira lanean, eta beti dute jendea. Euskal Herriak exportatzen duen onena sukaldaritza da. Dena dago krisian, baina euskal sukaldaritza ez. Ni sinistuta nago Donostiara joaten direnen %90 gastronomiagatik joaten direla. Hala esan ziguten guri Madrilen egin genuen mintegi batean: laz, Espainiara etorri ziren 44 milioi turistari galdetegi bat egin zietela eta gehien zer gustatu zitzaizen galderari gastronomia erantzun ziola gehiengo handi batek.

“Ni sinistuta nago Donostiara joaten direnen %90 gastronomiagatik joaten direla”

Norberak egindakoarekin gelditu behar dela esan diguzu, baina zu zeu sukaldari ezagunekin lan egindakoa zara. Bat aukeratzekotan, nor aukeratu zenuke?

Gamarrako ostalaritza eskolako irakasle Santi Ramirez. Laguna dut, eta jatetxea dauka Langarikan (Araba). Laua izena du jatetxeak, eta edonori gomendatuko nioke. Merezki du benetan. Izen handiko sukaldariak asko dira, baina nik Santirengandik ikasi dut gehien, eta zergatik emango dut ba orain beste izen bat? Gaur, oraindik ere, deitzen diot tarteka edozer galdetzeko.

Erretratu zaharra



1956

Aste honetako erretratu zaharra Morkaiko medizale elkarteko ki-deek euren artxibotik hartuta ekarri digute. 1956. urtekoa da, eta Peña Viejan aterata dago, Europako Mendietan. Juan San Martin (†) eibartarra eta Pako Iriondo (†) elgoibartar aski ezaguna ageri dira argazkian.

1980

Erretratu zahar hau herritar batek ekarri du BARRENEKO erredakziora. Huescako Piriniotan aterata dago, Jacatik gora dagoen Oroel mendian. Oso ezaguna da mendi hori ingurune hartan, eta abuztuan lasterketa bat ere antolatzen dute. Ramon Maiztegi (†) eta Pako Iriondo (†) ageri dira argazkian.



SUSANA ABAD ARTISAUA

Sormen tailerra antolatu du Zerikasik, Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailarekin eta Haizea emakume taldearekin elkarlanean, eta Susana Abad izango da irakaslea. Umetatik gustatu izan zaio Susanari marraztea eta eskulanak egitea, eta azken urteotan bitxiak egiten ditu, erabilitako materialekin. Eskola batzuk jaso izan ditu, baina gehiena bere kabuz ikasi du Susanak, eta orain, beste emakume batzuekin konpartituko du jakintza hori. Material birziklagarriekin bitxi edota apaingarri berriak egingo dituzte, norberaren abileziak eta irudimena erabiliz. Martxoaren 18an hasiko da tailerra.

Ainhoa Andonegi



**“Denok gara sortzaileak,
baina sormena landu egin behar da”**

‘Sormen tailerra’ jarri diozue izena ikastaroari. Zer eskainiko duzue?

Sormena landuko dugu. Ez da eskulanak egiteko tailerra izango, baizik eta bakoitzak barruan daukana kanporatzeko tailerra. Eskulanak, nolabait esateko, irakasleak emandako argibideak jarraituz egiten dira: berak ekartzen ditu materialak, egingo denaren adibideak, eta denek hori bera kopiatzen dute. Tailer honetan bakoitzak nahi duena egingo du, norberak nahi duen moduan. Jende askok uste du ez duela balio marrazteko, edo eskulanak egiteko, baina nik argi daukat denok balio dugula. Gizakiak berezkoa du sortzeko gaitasuna; ez da gutxi batzuen bertutea soilik. Denok gara sortzaileak, baina sormena landu egin behar da. Norberak sinisten badu sortzeko gai dela, askoz gauza gehiago sortzen ditu. Jende askok esan izan dit gustatuko litzaiokeela margotzea edo eskulanak egitea, baina ez direla animatzen, ez daukatelako irudimenik, eta baina ez dit balio. Pentsamendu horiek albo batera utzi behar dira.

Hezkuntza sistema kritikatu izan dute hainbat adituk sormena landu beharrean eskulanak egiten jartzen dituztelako umeak. Zer uste duzu?

Gure garaian halaxe zen, baina zorionez, gauzak hasi dira aldatzen eta gaur egun umeei uzten zaie librean sortzen. Nire alabaren lanak ikusten ditut, eta iruditzen zait lantzen dutela sormena.

Nola lantzen da sormena?

Modu asko daude, eta modu guztiak izan daitezke egokiak. Gure kasuan, emakume talde bat osatuko dugu, eta denon artean ideiak komunean jarritz sortuko ditugu gauzak. Denok daukagu taldeari emateko zerbait, eta elkarrengandik ikasiko dugu. Eguneroko bizimoduan denok sortzen ditugu gauzak, eta arazoei aurre egiten laguntzen du sormenak. Oztupoak nola gainditu erabakitzen duzun momentutik, sortzen ari zara. Etxean espazioa irabazi nahi duzula eta altzariak nola kokatu pentsatzen duzun unean ere, sormena lantzen ari zara. Gaur egun daukagun krisiarekin hilabete amaierara iristeko ere sortzailea izan behar da! Sormenak ez dauka mugarik, eta taldekideek duten ilusioaren eta bururatsen zaizkien ideien arabera joango gara tailerra egituratzen.

Zer landuko duzue ikastaroan sormenaren bitartez?

Emakumeen aktibazioa eta partaidetza landuko ditugu. Horrez gain, emakumeen autoestimuan ere eragin nahi dugu, eta gauza berriak sortzeak horretan izugarri laguntzen du. Zerbait egin eta emaitza gustatzen bazaizu, zeure buruarekin pozik sentitzen zara, eta horrek pila bat laguntzen dio norberaren autoestimuari. Berdintasuna lortzeko lanean ari gara, eta pausoak eman diren arren, oraindik badaukagu zeregina, eta tailer honi esker emakumeen arteko bizikidetzat landuko dugu. Elkarren artean ezagutzeko aukera izango dute, lagunak egin eta bestelako arazoak gainditzeko aukerak ere sortu daitezke talde-lanean. Emakume etorkinak ere animatu ditugu tailerrera, eta horiei integratzen lagunduko diegu. Emakumeen egoera zaila bada, are zailagoa da emaku-

me etorkinena eta lagun talde bat edukitzeak bizitzan aurrera egiten laguntzen die.

Zein motatako materialak erabiliko dituzue tailerrean?

Nonbaitetik hasi beharra neukan, eta hasierako saioan kartoiarekin hasiko gara. Kartoiak milaka aukera ematen ditu gauzak sortzeko. Kolaren ondo gogortuta, altzariak ere egin daitezke kartoiarekin. Baina nire asmoa denetariko materiala erabiltzea da. Eibarren egin nuen ikastaro batean, erabilitako erremintak erabiltzen genituen, eta oso gauza politak egin genituen. Ikastaroa martxan jartzen dugunean, taldekide bakoitzak ekarri dezake lanerako materiala. Baten senarrak tailer bat daukala eta iltzeak bota egin behar dituela, ba ikastarora ekarri ditzake; edo dendari batek zaborretara bota behar dituen poltsak ere erabili ahal ditugu... Batek esan dit kafe kapsula pila bat dituela etxean eta ekarriko dituela ikastarora. Edozerk balio du. Nire lagunek zaborretara botatzeko dituzten gauza pila bat ematen dizkirate, eta nik ia dena aprobetxatzen dut. Poltsa baten kremailearekin egin ditut bitxi batzuk, nire alabari txiki geratu zaizkion boten engantxeekin pultserak egin ditut...

Zuk zeuk nola ikasi duzu erabilitako materialarekin gauza berriak sortzen?

Betidantik gustatu izan zait marraztea eta eskulanak egitea. Nire aita pintorea zen, eta erreminta asko erabiltzen zituen lanerako. Bere bidetik jarraituko zuen semea nahi zuen, baina ni jaiotzen.

Hala ere, ibiltzen nintzen bere pintorekin jolasean. Gerora, ikastaro batzuk egin izan ditut, baina gehiena nire kabuz ikasi dut. Argi daukat loteria tokatuz gero, Arte Ederrak ikastera joango nintzatekeela. Umetatik gustatu izan zait hau guztia, eta orain dela urte batzuk bitxiak egiten hasi nintzen. Lagun batek animatu ninduen nire lanak erakustera. Valladolidekoa naiz ni, eta nire herrian Erdi Aroko azoka bat egin zuten. Han jarri nuen estreinakoz erakusketa, eta arrakasta izan zuen. Orduetik erakutsi izan ditut Elgoibarren eta

beste hainbat herritan. Orain ere emakume artisauen erakusketa jarri dugu Kultur Etxean, eta oso gauza politak daude. Askotan ez dugu jakiten albokoak zer egiten duen ere, eta erakusketak antolatzea oso ondo dago.

Bistan da zuk artea barruan daramazula, baina jende askok uste du ez duela horretarako balio. Posible da hori guztia ikastea ala berezko zerbait behar da?

Bai, ikasi daiteke. Denok ez dugu arte modalitate guztietarako balio, baina ez da beharrezkoa denean ona izatea. Adibidez, sortzeko ez dago zertan marrazkilari ona izan. Norberak gustukoa duen modalitatea aurkitzea da gakoa. Marrazten ondo moldatzen ez denak, collage-a egin dezake, adibidez. Material desberdinak erabiliz, collage-ak milaka aukera eskaintzen ditu, eta gauza oso politak sortu daitezke. Nik adibidez gantxiloarekin ezin dut. Teoria badakit, baina praktikan ez zait ondo irteten, beraz, beste teknika batzuk erabiltzen ditut nire bitxiak egiteko.

“Modu asko daude sormena lantzeko, eta denak izan daitezke egokiak”

LEIRE ALBERDI Zerikasiko teknikaria

Sormena landuz, Elgoibarko emakumeen aktibazioa eta autonomia lantzea nahi dute, eta bide batez, emakume etorkinen integrazioa eta parte hartzea sustatzeko ahalegina egingo dute. Zerikasi bizi osorako hezkuntza zerbitzuak antolatu du ikastaroa, Udaleko Berdintasun Sailarekin eta Haizea emakume taldearekin elkarlanean. Leire Alberdi Zerikasiko teknikariak eman dizkigu ikastaroari buruzko argibideak.

“Erakunde desberdinek elkarlanean antolatutako ikastaroek emaitza hobekak ematen dituzte”



Nolatan bururatu zitzaizuen ikastaro hau antolatzea?

Eibarko armagintza museoan egin nuen ikastaro interesgarri batean torlojuak, iltzeak, malgukiak eta bestelakoak erabiltzen genituen bitxiak egiteko, eta han bururatu zitzaidan Elgoibarren ere antzerako zerbitu egin genezakeela. Susanari komentatu nion eta bion artean hasi ginen lanean. Zerikasitik antolatzea pentsatu genuen, baina finantzazio arazoak genituen. Udalera ere bidali genuen proposamena eta gustatu egin zitzaion. Azkenean elkarlanean antolatu dugu. Udaleko Berdintasun Sailak lagundu digu diruz, eta horri esker tailerra doan eskainiko dugu. Haizea emakume taldeak ere promozioan lagundu du, eta gainera, beraien lokala utzi digute. Elkarlan publiko pribatua izan dugu ikastaroa antolatzeko, eta erakunde desberdinekin elkarlanean antolatutako ikastaroek emaitza hobekak ematen dituztela iruditzen zait. Ahoz ahoko informazioak oso ondo funtzionatu du, eta Udala ere asko inplikatu da. Eskertzekoa da. Askotan ez da erraza izaten ikastaroak antolatzea, lokalik ez daukazulako edo finantzazioa falta duzulako, baina oraingoan dena ondo irten zaigu.

Martxoaren 18an hasiko da tailerra, eta badi-rudi interesa piztu duela.

Bai. 30 bat emakumek eman dute izena dagoeneko, eta denak talde batean biltzeko gehiegi direla iruditu zaigunez, bi talde egingo ditugu. Astean behin izango dira saioak, martitzenetan. Lehenengo taldea 16:00etatik 18:00etara eta bigarrena, 18:00etatik 20:00etara. Bi talde egiteak jende gehiago hartzeko aukera eskainiko digu. Datorren asteartean hasiko gara, beraz, interesa duenak oraindik deitu dezake. Ez nuke nahi jendea

kanpoan geratzea. Printzipioz maiatzaren 27ra arte iraungo du, baina taldea gustura badago eta jarraitzeko interesa erakusten badu, luzatu egin daiteke edo bigarren saio bat antolatzea ere aztertu daiteke. Agian azokaren bat ere egin genezake tailerrean egindako gauzak erakusteko. Taldeak berak hartuko ditu erabakiak.

Emakumeen aktibazioa, integrazioa eta autonomia sustatzea da ikastaroaren helburuetako bat.

Bai, jabetza ikastaroen barruan antolatu dugu tailerra, eta helburu nagusia emakumeen ahalduntzea eta autonomia lantzea da. Etorrinen integrazioa sustatzea ere nahi dugu, ikus dezaten ez ditugula alboratzen eta kontuan hartzen ditugula. Azken batean, denok gara emakumeak eta denon beharrak antzekoak dira, beraz, emakume sare bat sortu dezakegu, elkarri laguntzeko. Askotan guk geuk jartzen dizkiogu gure buruari oztopoak, eta horrelako ikastaroek asko laguntzen dute autoestimuan.

Emakumeentzat soilik antolatu duzue?

Bai, printzipioz emakumeentzako antolatu dugu, integratzeko eta aktibatzeko behar gehiago dutelako. Jabetza eskolak ere genero berdintasuna lortzeko ikastaroak antolatzen ditu, eta tailer hau ere il-do horretan doa. Emakume batzuk zailtasun handiagoak dituzte ekintzetan parte hartzeko eta aktibatzeko, eta motibazioa landuko dugu horiekin. Berdintasunerako pausoak eman dira, baina oraindik gizartea matxista da, eta matxismoa oso berreratuta dago; emakumeen artean ere bai. Oraindik badago lana, eta gu saiatuko gara era honetako ikastaroak martxan jartzen.

30 emakumek parte hartu zuten Mendaroko frontenis txapelketan

Emakumeen eskubideen aldeko txapelketa izan zen



Martxoaren 8aren harira, emakumeentzako frontenis txapelketa antolatu zuten Mendaron, emakumeen eskubideak aldarrikatzeko. Hamabost bikotek hartu zuten parte. Hiru taldetan banatuta, ligaxka estiloan jokatu zuten lehen fasea. Partida bakoitzak zazpi minutuko iraupena izan zuen, eta denbora horretan tanto gehien egiten zituen bikoteak egiten zuen aurrera. Finalurrekoak eta final nagusia denbora mugarik gabe jokatu ziren. Antolatzaileak eta partaideak oso gustura geratu dira txapelketak izandako harrerarekin.

Arkaitz Egañak irabazi du Elgoibarko ehiza xehe txapelketa



La Union elkarteak antolatuta, Elgoibarko ehiza xehe txapelketa jokatu zuten joan den asteburuan Zanbranan (Araba). 25 lagunek hartu zuten parte txapelketan, eta Arkaitz Egaña *Mintxeta* izan zen onena. 9 pieza bota zituen, eta horri esker, berak jantzi zuen txapela. Bigarrena Joseba Aizpiri izan zen sei piezarekin, eta hirugarrena Iraitz Txurruka, beste seirekin.

Beteranoetan Jose Mari Egañak irabazi zuen bi piezarekin, lehenengo emakumezkoa Ixone Juaristi izan zen bi piezarekin eta jubeniletan Ivan Rogelek jantzi zuen txapela, pieza bakarrarekin.

Pilota Eguna antolatu du Elgoibar Ikastolak biharko

Kirol jarduerak sustatzeko egitasmoaren barruan, Pilota Eguna antolatu du Elgoibar Ikastolak biharko. 10:30etik aurrera, beraz, pilotak hartuko du Kalegoen plaza. 6tik 14 urtera arteko neska-mutilek hartuko dute parte. Euria egiten bada, Ikastolako frontoian ospatuko dute eguna.

Kirol campusa antolatu du Kirol Patronatuak Aste Santurako

Aurreko urteetako bidetik jarraituz, Elgoibarko Kirol Patronatuak Kirol Campusa antolatu du aurten ere Aste Santurako. 2000 eta 2006. urteen artean jaiotako umeek hartu dezakete parte kirol campusean. Apirilaren 14an, 15ean, 16an, 22an, 23an, 24an eta 25ean, hainbat kirol mota egiteko aukera izango dute partaideek, 9:30etik 12:30era bitartean. Mintxetako atletismo, padel eta tenis pistak, futbol zelaiak, Olaizagako kantxa eta Ikastolako frontoia erabiliko dituzte, besteak beste, futbola, saskibaloia, tenisa, padela, atletismoa eta beste hainbat kirol mota egiteko. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena, martxoaren 17tik apirilaren 4ra arte. Kirol Patronatuko bazkideek 52 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 57 euro.



Kilimon Trail Mendaroko mendi lasterketan izena emateko epea zabalik dago

Mendaroko Txirrindulari Elkarteak Kilimon Trail mendi lasterketa antolatu du apirilaren 13rako, eta interesatuak zabalik dute dagoeneko izena emateko epea. www.herrikrossa.com helbidean eman behar da izena. Aurrez ematen dutenek 17 euro ordaindu beharko dituzte, eta egunean bertan ematen dutenek, 20 euro. Antolatzaileek jakinarazi dute Euskal Herriko eta Espainiako korrikalari "handiek" izena eman dutela dagoeneko.

29 elgoibartarrek eta zortzi mendarorrek hartu dute parte Lilatoian

Emakumeen aldeko lasterketak 25 urte bete ditu

Martxoaren 8aren harira, Lilatoia egin zuten hainbat eta hainbat emakumek domekan, Donostian. 3.146 emakumek amaitu zuten bost kilometroko proba, tartean 29 elgoibartarrek eta zortzi mendarorrek. Donostiako koordinadora feministak 1990. urtean antolatu zuen estreinakoz emakumeentzako bost kilometroko herri lasterketa. Besteak beste, emakumeak kirola kalean egitera, lasterketa mistoetan parte hartzera eta kirolarekin atxikimendua izatera animatzeko eta, nola ez, emakumeek egindako kirol jardueren aitortpena aldarrikatzeko. Ordu tik, hogeita bost urte igaro dira, eta gaur egun ere kirolean lehen urratsak emateko aitzakia izan ohi da Lilatoia emakume askorentzat.



SAILKAPENAK

ELGOIBAR

49. Idoia Oiarzabal	(22:15)
111. Lourdes San Martin	(23:48)
112. Miren Ramos	(23:48)
117. Jone Olaizola	(23:57)
118. Lore Bereziartua	(23:57)
152. Izaskun Hurtado	(24:36)
312. Andrea Arriola	(26:42)
313. Judith Zabala	(26:42)
401. Eider Iriondo	(26:50)
544. Susana Azpillikueta	(28:37)
652. Ainhoa Juaristi	(29:09)
653. Maider Etxaniz	(29:10)
701. Olatz Gonzalez	(29:23)
756. Pilar De La Lama	(29:39)
1.048. Lorea Oyarzabal	(31:01)
1.089. Maite Uribe	(31:09)
1.092. Ainhoa Alberdi	(31:09)
2.111. Ana Fernandez	(34:30)
2.419. Marian Arriola	(35:36)
2.421. Mapi Fernandez	(35:36)
2.460. Inma Mugerza	(35:42)
2.629. Estitxu Irisari	(36:19)
2.819. Izaskun Landa	(37:01)
3.024. Maria Jose San Juan	(38:38)
3.032. Maite Landaburu	(38:53)
3.033. Janire Eguren	(38:54)
3.034. Miriam Lizarralde	(38:54)
3.035. Amaia Gorrotategi	(38:54)
3.037. Amaia Zubiaurre	(38:54)

MENDARO

211. Marimar Cebrian	(25:26)
322. Irene Elorza	(26:46)
1.583 Dorleta Aranberri	(32:50)
1.587 Izaskun Loyola	(32:51)
2.672 Mirari Egaña	(36:30)
2.673 Maria Etxabe	(36:30)
2.675 Lorea Ríaño	(36:30)
2.938 Idoia Larrañaaga	(37:53)

Bihar hasiko da Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketa

Bihar hasiko da Gipuzkoako Hiru Txirlo bolo txapelketa, eta azken urteotan bezalaxe, Aiastiako taldea izango da elgoibartarren ordezkaria txapelketan. Azpeitiko Garmendipe bolatokian jokatuko dute estreinako jardunaldia, bihar, 17:00etatik aurrera. 11 jardunaldi izango ditu txapelketak, eta horietako hiru Elgoibarren jokatuko dira: apirilaren 5ean Idotorben, apirilaren 12an San Roken, eta apirilaren 26an, Aiastian. Ekainaren 7an bukatuko da txapelketa.

Eskubaloi campusa antolatu du Sanlok uztaileako

2002 eta 2005. urteetan jaiotakoek hartu dezakete parte



azko arrakasta ikusita, aurten ere eskubaloi campusa antolatu du Sanlok uztaileako. Canfanc-en (Huesca) izango da campusa, eta bi txanda egongo dira aukeran; bata uztailearen 10etik 17ra, eta, bestea, 17tik 24ra. Rio Aragon aterpetxean hartuko dute os-tatu, eta besteak beste, mendi irteerak, jolasak, entrenamenduak, tailerrak eta gaubelak egingo dituzte. Aurtengo berrikuntzen artean, bestalde, abentura kirolak nabarmendu di-tuzte antolatzaileek. Besteak beste, tirolina eta zubi mugikorak izango dituzte aukeran. 2002tik 2005era bitartean jaiotako umeez hartu dezakete parte.

Elgoibarko Lagun Taldea Saria, hilaren 29an

Martxoaren 29an jokatuko da kadete mailako Elgoibarko Lagun Taldea Saria txirindularitza proba. 11:00etan irtengo dira txirindulariak Kalegoen plazatik, eta helmuga Santa Klara auzoan izango da. Guztira, 52 kilometroko ibilbidea egin beharko dute partaideek.

45 lagunek hartu dute parte Morkaiko antolatutako mendi eski irteeran

Mendi eski irteera antolatu zuen Morkaiko mendizale elkarteak joan zen aste-bururako, eta 45 lagunek hartu zuten parte. Barixakutik domekara bitartean, Piri-riotan pasatu zuten asteburua. Eguraldia primerakoa izan zuten, elurra ere bikaina, eta oro har, dena ondo irten zela nabarmendu dute.



EMAITZAK

FUTBOLA

Baskonia 5 – Haundi 0 (3. maila)
Elgoibar 0 – Mondragon 1 (Erreg.)
Santurtzi 4 – Elgoibar 3 (Neskak)
Lengokoak 1 – Elgoibar 0 (Jub.)
Elgoibar 5 – Mondragon 1 (Kad. A)
Elgoibar 3 – Orioko 4 (Kad. B)
Elgoibar 1 – Hondarribi 3 (Lehen-go inf.)
Aizkorri 1 – Elgoibar 5 (Inf. Txiki)

ARETO FUTBOLA

Xota B 3 – Concepto Egile Elg. 4 (2B)
Egintza Obaba 4 – King-Kong Elg. 2 (Jub.)

ESKU PILOTA

Allerru 22 – Lagunak 19 (3. mailako Kad.)

ESKUBALOIA

Eibar 25 – Alcorta Elg. 23 (Sen. mut.)
Gabaz Elg. 26 – Tolosa 27 (Sen. mut.)
Bera Bera 22 – Astigarraga Elg. 28 (Sen. mut.)
Beristain Elg. 27 – Ereintza 29 (Jub. mut.)
Bera Bera 18 – Murgil Elg. 10 (Kad. nesk.)
Pneumax Txarriduna Elg. 29 – Pulpo 25 (Kad. mut.)
Cometel Elg. 26 – Egia 26 (Inf. nesk.)
San Roke Elg. 18 – Udarregi 21 (Inf. nesk.)
Pulpo 12 – Ikus Elg. 21 (Inf. nesk.)
Deca Elg. 29 – Pulpo 21 (Inf. mut.)
Zarautz B 25 – Bankoa Elg. 25 (Inf. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 15
12:30 Elgoibar – Amaiak Bat (Inf. Txiki)
16:30 Haundi – Amurrio (3. maila)
18:30 Elgoibar – Anaitasuna (Erreg.)
Domeka, 16
11:00 Elgoibar – Zarautz (Aleb.)
12:30 Elgoibar – Zarautz (Nesk.)
16:00 Elgoibar – Zarautz (Kad. A)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 15
9:45 King Kong Elg. – XXX (Jub.)

PILOTA

Barixakua, 14
21:30 Lagunak – Aloña Mendi (3. mailako kad.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 15
11:15 Bankoa Elg. – Bidasoa B (Inf. mut.)
12:30 Ikus Elg. – Aiala B (Inf. nesk.)
16:15 Tecnifuelle Elg. – Basauri (Kad. nesk.)
18:00 Astigarraga Elg. – Aloña Mendi (Jub. nesk.)
19:45 Lauko Elg. – Basurto (Sen. nesk.)
Domeka, 16
10:00 Cometel Elg. – Eibar (Inf. nesk.)
11:15 Deca Elg. – La Salle (Inf. mut.)
12:30 Murgil Elg. – Leizaran (Kad. nesk.)

Elgoibarren jokatuko dute bihar eta etzi Aurreku eta Soinu zahar txapelketa

70 dantzarik parte hartuko dute

Asteburu honetan Aurreku eta Soinu zahar txapelketa jokatuko dute Elgoibarren. Bihar, zapatua, mutiak eta B1 saileko neskek lehiatuko dira, 12-13 urte arteko neskek, alegia. Domekan, berriz, A sailekoen (7-11 urte) eta B2 sailekoen (13-14-15 urte) txanda izango da. Herriko Antzokian jokatuko da txapelketa: zapatuan, arratsaldean, 16:00etatik aurrera, eta domekan, goizez, 11:00etatik aurrera. Euskal Herriko hainbat herritako dantzari gazteak arituko dira dantzan, bakarka zein binaka. Guztira, 70 dantzari izango direla aurreratuko dute Haritz euskal dantzari taldeak. Antolatuzaileek dei egin diete herritarrei elgoibartarrak animatzera joateko.



‘Asmakuntzak salgai’ ikuskizuna antolatu du Atxutxiamaikak

Asmakuntzak salgai ikuskizuna antolatu du gaurko Atxutxiamaikak, Elgoibarko Izarraren aisialdi taldeak. Haur Hezkuntzako bigarren mailatik hasi eta Lehen Hezkuntzako bigarren mailara arteko ikasleei zuzendutako ikuskizuna da, eta Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan izango da, 17:30etik aurrera. Jolas izeneko ikertzaile baten inguruko da. Benidormeko hondartzara joango da Jolas etxeko laborategi ezkutuan egin dituen objektuak aurkeztera, eta gauzak nahi bezala irtengo ez bazaizkio ere, Jolasek ez du sekula irribarrerik galduko.

‘Silkwood’ filma aztertuko dute gaur

Haizea taldeak zine-foruma antolatu du gaurko. *Silkwood* filma komentatuko dute, Nora Ephronek zuzendari eta gidolari estatu-batuarrak zuzendutako filma da, eta gidoi onenaren Oscar sarirako hautagaia izan zen bere garaian. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da zine-foruma, 21:30etik aurrera, eta Loredi Salegik gidatuko du.

Irabazi asmorik gabeko elkarte eta kultur taldeentzako laguntzak

Kultura alorrean lehiaketa bidez banatuko diren diru laguntzetarako eskaerak aurkezteko epea zabaldu du Elgoibarko Udalak irabazi asmorik gabeko elkarte eta kultur taldeentzat. Diru laguntza horiek eskatzeko, Udaleko Kultura Batzordearen helburuak bete beharko dira: kultur jarduerak eskaintzea eta egindako jardueren bidez Elgoibarko herriaren izena ezagutaraztea, elgoibartarrei eta kanpokoei kultur jarduera horietan parte hartzeko aukera eskaintzea, eta herritarren eta gainerako elkarten arteko lankidetzaren sustatzea. Informazio gehiagorako: www.elgoibar.org.

Euskara arloko diru laguntzetarako eskaerak aurkezteko epea ireki du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak onartu ditu euskara arloko diru laguntzak, eta bi epe jarri ditu eskaerak aurkezteko. Elgoibarko Udala Euskaltegitik kanpo euskara ikasi nahi dutenek, barnetegietan euskara ikasteko egonaldiak egin nahi dituztenek, UEUK, EHUK eta Hik Hasik euskara hutsean antolatutako ikastaroak egin nahi dituztenek eta Elgoibarko establezimenduetako publizitate errotuluak euskara hutsean jarri nahi dituztenek urriaren 31 arteko epea dute eskaerak aurkezteko. Lanbide Heziketako prestakuntza euskaraz egin nahi dutenek edota herriko enpresetan euskararen erabilera planak bultzatu nahi dituztenek, berriz, irailaren 25a arteko epea izango dute. Informazio gehiagorako www.elgoibar.org / 943 744 366

UEUko ikastaroak egin nahi dituztenentzako diru laguntzak emango ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak diru laguntzak emango dizkie UEU Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaroetan parte hartu nahi duten herritarrei. Euskara Batzordeak matrikula osoa ordainduko die ikasle, langabetu, pentsiodun eta jubilatu elgoibartarrei. Lanean dihardutenei matrikularen erdia ordaintzeko dirulaguntza emango die. Informazio gehiago nahi dutenek Elgoibarko Udaleko Euskara Sailera jo behar dute (943 744 366, euskara@elgoibar.net).

Martxoaren 17an hasiko dira udako ikastaroak eta ekainaren 4an bukatu, eta izena emateko epea ikastaroa hasi baino astebete lehenago itxiko da (www.ueu.org). Ikastaro horietan parte hartu nahi dutenek edo argibide gehiago nahi dituztenek Udako Euskal Unibertsitatearekin jarri beharko dute harremanetan: 943 820 616 / markeskoa@ueu.org.

Fisikaren Olinpiar Jokoen Euskal Herriko kanporaketa irabazi du Alberto Hijanok

34 ikaslek hartu zuten parte lehiaketan

Markak hausten jarraitzen du Alberto Hijano elgoibartar gazteak. 16 urte ditu, eta Batxiloergoko bi ikasturtealdi berean egiten dihardu gaur egun Mutrikuko Institutuan. Leioan, Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologien fakultatean jokatuko dira Fisikaren olinpiar jokoa. Nazioarteko txapelketa da, eta Leioan jokatuko dena Euskal Herriko kanporaketa izan da. Guztira, 34 ikaslek parte hartu zuten eta lehenengo sailkatu ziren hirurak, Alberto Hijano elgoibartarra, Santurtziko institutuko Eneko Martin eta Loiu Urdaneta kolegioko Baithin Power, Espainiako kanporaketarako sailkatu dira —apirilaren 4an jokatuko da—



Iñaki San Martín 'Soarte' argazkilariaren lan bat saritu dute Calellako Festimage sariketan




Iñaki San Martín *Soarte* argazkilari elgoibartarraren argazki bat nabarmendu dute Calellan, Festimage nazioarteko sariketan. 378 argazkilariak parte hartu dute, eta guztira, 3.983 argazki aurkeztu dituzte sariketara. Soartek zazpi aurkeztu zituen eta *Aterki urdina* izenekoak ISF (Image Sans Frontiere) aipamena jaso du. *Motxo* itsasontzia ageri da argazkian, Debako Elorriaga auzoko Baratzazaurre parajearen hondoa jo eta Deba eta Zumaia arteko labar horretan, biotopo babestuan, harrapatuta gelditu zen ontzia.

Buruhandiak egiteko tailerra antolatu du Atxutxiamaikak

Buruhandiak egiteko tailerra antolatu du Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak aisialdi taldeak HH4 eta LH2 adin tarteko umeentzat eta haien senitartekoentzat. Bi saio izango dira, Plaza Txikiko lokalean: bata, martxoaren 22an, eta bestea, martxoaren 29an, biak ere 16:00etatik 18:00etara. Hizkuntza transmisioa lantzeko tailerrak dira, eta hori dela eta, gutxieneko euskara maila izatea eskatuko zaie gurasoei. Martxoaren 19a da izena emateko azken eguna, eta izenemateagatik 8 euro ordaindu beharko dira (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 7 euro). Ordainketa transferentzia bidez egin beharko da: KutxaBank: 2095 5036 58 1070736292

'Erraiak' liburua aurkeztu du Danele Sarriguartek

Bikote haustura baten ondorengo obsesioak kontatu ditu Danele Sarriguartek *Erraiak* eleberrian (Elkar). Bere esanetan, gaur egungo Euskal Herrian, “arazo handirik gabeko giro batean”, harremanak zer diren jaso nahi izan du. Literatur kritikariek Danelek erraietara iristeko eta horietan arakatzeko daukan abilezia nabarmendu dute, eta baita sexu eszenak eta gorputzaren erreakzioak kontatzeko erabili duen idazkera ausarta ere. “Hatza zaurian sartu eta sentsazio guztiak muturrean eraman ditu”, nabarmendu zuen Antxine Mendizabal Elkarreko editoreak aurkezpenean. Bakarrizketa moldean idatzitako liburua da *Erraiak*.



LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **636 247 429**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **664 009 684**
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko. Goizez. ☎ **617 571 210**
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko. Orduka. Asteburuetan ere bai. ☎ **628 524 420**
- 35 urteko emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ **602 865 726**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia handia daukat. ☎ **675 358 119**
- Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeak garbitzeko. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketarako. Esperientziaduna. ☎ **677 449 458**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo jardun osora. ☎ **632 395 829**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. ☎ **606 354 982**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. ☎ **602 391 899**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. Esperientzia handia. ☎ **616 457 254**
- Emakumea lan bila. ☎ **690 359 554**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. ☎ **631 102 186**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. ☎ **626 052 165**

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **637 799 659**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **602 391 899**

PARTIKULARRAK

- Ingeles klaseak ematen ditut etxez-etxe, maila guztietan. ☎ **680 319 002**
- Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bati klase partikularrak emateko pertsona behar da, bereziki, Gaztelania irakasgaia emateko. ☎ **628 413 290**

KINTOAK

- 1974an jaiotakoek bazkaria egingo dute maiatzaren 17an, Sigma jatetxean. 13:00etan batuko dira, Kalegoen plazan. Luntxa, bazkaria, argazkia eta DJa izango dituzte. Interesatuak 45 euro ordaindu behar dituzte, maiatzaren 8rako. Laboral Kutxa: 3035 0007 21 0071128773
- 1964an jaiotako eta aurreko 50 urte beteko dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute Sigma jatetxean, ekainaren 21ean. Interesatuak 60 euro sartu behar dituzte Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0007 20 0071129002. ☎ **639 925 597 / 648 191 042 / 608 555 489 / Elgoibar1964_quintos@yahoo.es**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Klase partikularrak: **10€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Klase partikularrak: **8€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



- Sarri galdetzen didate: obra bat egiteko bildu ditugun aurrekontuetatik zein aukeratu behar dut? Erantzunak erraza ematen du: ekonomikoena. Baina ekonomikoena ez da beti merkeena izaten, eta horrek harritu egiten ditu bezero asko. Hala, azalpen bat ematera derrigortuta egoten gara.

Gure beharrei ondoen erantzuten dien aurrekontu merkeena aukeratu behar dugu. Ez dut inoiz ezagutu espezialista baten kontsultara joan eta osasun zentrorra sartzeaz bat sendagile merkeena zein den galdezk hasten den inor. Eta berdin gertatzen da beste arlo batzuetan ere. Adibidez, babes juriko bila dabilenak ere sekula ez du galdetuko nork dituen tarifa merkeenak.

Halakoetan, beste kontu batzuk baloratzen eta lehenesten ditugu, eta horixe bera egin beharko genuke etxaldean administrazio kontuez ari garenean ere. Nekez galdetzen diogu geure buruari etxalde horrek zein behar dituen eta etorkizunean zeintzuk zerbitzu jaso beharko dituen. Obra bat egitea aurreikusten dugun kasuetan, nekez zehazten dugu proiektu edo baldintza sorta bat, aurrekontua eskatuko diegun gremio guztiek gidioztat erabiliko dutena. Huts-hutsean aurrekontu merkeenaren alde egin aurretik, ondo aztertu behar dira profesionalak eskaintzen dizkiguten zerbitzuen memoriak, haien esperientzia eta dedikazioa.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **bitxo**, igandean 10 urte potolo egin zenituelako. Etxeko guztien partetik, ondo pasa.



• Zorionak, **Lara**, etxeko printzesa, gaur 4 urte handi egin dituzulako. Muxuak gurasoen, aittitaren, amamaren, eta bereziki neba Paulen eta Nastiaren partez.



• Zorionak, **Nahia**, martxoaren 12an 4 urte bete zenituelako. Patxo potolo-potolo bat familiako guztien partez.



• Zorionak gure realzale amorratuenari! 5 urte! patxo piloa, **Julen**, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Axier!** Asteartean 3 urte bete zenituelako, muxu potolo bat aitaxo, amaxo eta familiakoen partez.




• Zorionak, **Jon bapelduni!** Ondo pasa zure urtebetetze egunean.



• Zorionak, **sorgintxo**, hilaren 19an 5 urte beteko dituzulako. Milioi bat muxu, gurasoen eta ahizpa Iratiren partez.




• Muxu erraldoi bat zure egunean, **Unai!** Etxeko partez zazpi tirakada belarritik, bereziki, Elsaren partez.



• Zorionak, **Haizea**, eta zazpi muxu potolo, etxeko guztien partez, gure sorgin politari.



• Zorionak, **Telmo eta Iñigo**, igandean 2 urte egingo dituzuelako. Muxuak, familiakoen partez, eta bereziki, Antxon eta Nerearen partez.



• Zorionak, **Iargi eta Alai**, atzo eta gaur zuen eguna izan delako. Zorionak, bikote, eta muxu handi bat.



Zoriondu ezazu **BARREN**en!

PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

4'50€

Argazki bikoitza:

7€

Hirukoitza:

9€

Hiru lagunetik gorako taldeak:

15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

3'50€

Argazki bikoitza:

6€

Hirukoitza:

8€

Hiru lagunetik gorako taldeak:

12€

Argazkiak **eguzten eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira

BARRENeko bulegora,

edo barren@elgoibarkoizarra.com

e-postara bidali.

Martxoaren 17an,
Scalextric talde-lehiaketa,
17:30etik aurrera.



Martxoaren 29an San Pedro konkistatzera goaz! Taldeko probak eta barbakoa egingo dugu. Izenemate epea, martxoaren 23ra arte.

14 barixakua

Zine-forum 21:30 'Silkwood'

Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Loredi Salegik dinamizatuko du.

Antzerkia 22:00 'A gustoooooo'

Gorka Aginagalde eta Gurutze Beitia aktoreekin, Mendaroko San Agustin kulturgunean.

15 zapatua

Auzolana 9:30 Zuhaitz Eguna

Sargoateko iturria berritzeko lanak auzolanean egiteko ekimenaren barruan, zuhaitz eguna antolatu du Morkaikkok. IMH tenis pistan batuko dira.

Kirola 10:30 Pilota Eguna

Elgoibar Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Ikastolako frontoian.

Dantza 16:30 Elgoibarko auresku eta soinu zahar txapelketa

Herriko Antzokian.

16 domeka

Dantza 11:00 Elgoibarko auresku eta soinu zahar txapelketa

Herriko Antzokian.

17 astelehena

Kontzertua 19:30 Inazio Bereziartua Musika Talde Instrumentala

Musika Eskolako auditorioan.

18 martitzena

Hitzaldia 19:00 Giza Eskubideak

Biktimak euskal gizartean barne hartzen dituen memoria kolektiboa jorratuz.
Hizlaria: Andres Krakenberg.

20 eguena

Doluitika 19:00 Herri batzarra

Sorturen Herri Batzarra egingo dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Zutik Euskal Herria onartu zutenetik urte batzuk pasatu dira eta estrategia baldintza eta egoera berrietara egokitzea dute helburu.

ZINEA

«12 años de esclavitud»

14, barixakua: 22:15
15, zapatua: 19:00/22:15* (VOS)
16, domeka: 19:00
17, astelehena: 21:30



Zuzendaria: Steve McQueen. AEB eta Erresuma Batua, 2013. Iraupena: 135 min. Genero: drama. Aktoreak: Chiwetel Ejiofor, Michael Fassbender, Benedict Cumberbatch. Benetako istorio batean oinarritutako filma da. Gizon batek askatasunerako egiten duen borroka kontatzen du pelikulak. Estatu Batuetako gerra zibila baino bi hamarkada lehenago Solomon Northup arraza beltzeko gizon librea esklabu saldu zuten. Bere esklabutzako hamabigarren urtean abolizioaren aldeko kanadar bat ezagutuko du, eta bere bizitza aldatuko da.

«Todos queremos lo mejor para ella» (Ongarri zinekluba)

20, eguena: 21:30



Zuzendaria: Mar Coll. Espainia, 2013. Iraupena: 105 min. Generoa: Drama. Aktoreak: Nora Navas, Valeria Bertuccelli, Pau Dura, Agata Roca, Jordi Costa. Istripu larri bat izan eta urtebetera, bizitzari berriz ekiteko prest dago Geni. Guztiaren nahia egin nahi du, baina ez daki horretarako gai izango ote den. Istripua izan aurretik zeukan bizimodua dagoeneko ez zaio interesatzen, eta zalantzak sortzen zaizkio bizitza horri berriz ekin nahi dion ala ez erabakitzerakoan. Ihes egitea erabakiko du.

BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
14 Fernandez 15 Yudego 16 Yudego 17 Zabaleta 18 Barrenetxea 19 Ibañez 20 Garitaonandia	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tallerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20



Gremioen GIDA





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

**Eibarko
Dendarien Elkarte**
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN
TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Uleldako Unibertsitatea eta Madril.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea, Madril.**
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Uleldako Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatu Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatu. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensea.**
Hortz-Estetikan Diplomatu. **Autran Institutua, Bartzelona.**
Etengabeko Farmakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**
Okklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

MUTUAK ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, FADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com